



Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

Euskal jazzak presentzia nabarmena izango du Heineken Jazzaldian

Euskal jazzak presentzia garrantzitsua izan ohi du urtero Heineken Jazzaldian eta horrela izango da 52. edizioan ere.

Zehatzago esanda, urtarriletik apirilera bitarteko hautatze-prozesuan sailkatutako 10 taldek joko dute; beste 6 talde 2016an diskoa argitaratu zutelako programatu dira; 3 Musikenek proposatu ditu; 4 2017ko Katapulta Tour Gipuzkoakoak dira; beste hiru antolakuntzak hautatu ditu zuzenean (Niña Coyote eta Chico Tornado, Sky Beats eta Descarga Libre 4tet) eta, azkenik, San Telmoko Eguerdietan joko duten 2 taldeak daude, Musikeneko irakaslez osatuak. Horiei guztiei Nauticool-en –aurrerago iragarriko da agertoki horretako programazioa– jardungo duten 7 euskal DJak gehitu behar zaizkie.

Horrek esan nahi du, guztira, 35 euskal taldek eta bakarlarik hartuko dutela parte 52. Heineken Jazzaldiaren programazioan.

Berrikuntza modura, Jazzaldiak aurtun 2017ko Katapulta Tour Gipuzkoa zirkuituko lau talde programatu ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuarekin sinatutako hitzarmen bati esker, musikaren alorrean nabarmentzen ari diren Gipuzkoako talentu berriak sustatzeko xedearekin.



Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

Antolakuntzak zuzenean programatua

Niña Coyote eta Chico Tornado

Ursula Strong (bateria), Koldo Soret (gitarra, ahotsa)

Izen berezi honen atzean Ursula Strong eta Koldo Soret-ek osatutako bikotea dugu. Strong-ek iragan "lotsagabea" izan du Zuloak edota Las Culebras bezalako taldeetan. Soret-ek dagoeneko utzi du arrasto elektrikoa, Surfin Kaos edota Chico Boom taldeetan izandakoa. Bertako bi musikari, energiaz eta garrez beteak, dagoeneko nazioartean hainbat bira egin dituztenak: Estatu Batuetan, Mexikon, Japonian eta Txilen. Euskarazko Album Onenetatik Etxepare Saria jaso dute aurten MIN sarietan (Musika Independentearen Sariak), *Eate* azken diskoagatik.

Sky Beats

Gus González (bateria), Sergio Villar (gitarra), Lidia Insausti (ahotsa), Manu Gestido (baxua) Donostiako Sky Beats bandak soul-aren sentsibilitatea eta rock-aren indarra fusionatzen ditu, askok musika genero garaikide bat bezala definitu dutena sortuz: soul 'n' roll-a. Lehen EPa 2013an grabatu zuten, Heineken Jazzaldian estreinatu zuten eta kopia guztiak saldu zituzten. Orduetik jaialdiaren edizio guztietan parte hartu dute; Fred Wesley, Stacie Collins edota Javier Vargas-en mailako musikariek in jo dute Espainiako Estatuko hainbat aretotan, eta Radio 3 bezalako hedabideen kritika apartak jaso dituzte. 2016an kaleratu zuten lehen disko luzea, *Ad Libitum*: gustu handiz egindako 11 abesti. Udan errepidea hartu eta Europan zehar bidaiatu zuten euren lana erakutsiz, eta berandu baino lehen, mundu guztira zabalduko dute.



Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

Descarga Libre 4tet: Dizzy Gillespie-ri omenaldia

Mikel Makala (erritmo-kutxa, sampler-a), Jimmy Bidaurreta (teklatuak), Denis Barzaga (perkusioa), J. M. Dorronsoro (tronpeta)

Unexpected Tapas (2011) albuma publikatu eta urte batzuetara, Mikel Makala DJ eta agitatzaile musikal euskaldun-alemaniarrek eta Jimmy Bidaurreta Gasteiz Big Band-eko zuzendari eta ekoizleak indarrak batu dituzte proiektu berri bat sortzeko: Descarga Libre. Latin, jazz, funk eta deskarga soinuen arteko nahasketa berreskuratu eta Fania bezalako zigilu ezagunen Nuyorican salsara hurbilduko dira, dantzarako musikaren tendentzia berriekin bat eginez. Zuzenekoetan lagun izango dituzte: Denis Barzaga, Donostian bizi den perkusionista kubatarra, eta J. M. "Dizzy Do" Dorronsoro, tronpetista donostiarra, azken hamarraldietako jazz eszena euskaldunaren ohiko musikaria.



Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

San Telmoko Egurdietako taldeak

Iñaki Salvadorren Laukotea: 100 urte Thelonious Monk jaio zela

Iñaki Salvador (pianoa), Andrzej Olejniczak (saxo tenorra), Gonzalo Tejada (kontrabaxua), Borja Barrueta (bateria)

Ehun urte betetzen dira aurten jazzean eragin handienetakoa izan duen pianista bat jaio zela, Thelonious Monk. Haren obra gogoratzeko Iñaki Salvadorrek benetako super-talde bat osatu du euskal musikariek, zein bere instrumentuan gehien nabarmentzen direnetako batzuk bildu dituelarik. Nazioartean proiektio handienetakoa duen jazzeko euskal musikarietako bat da Salvador: zinemarako, telebistarako eta antzerkirako musika idatzi du, hainbat disko argitaratu ditu bai bere izenean eta bai beste batzuekin lankidetzan, Heineken Jazzaldiaren aurreko edizioetan arrakasta izan duten hainbat proiektu sortu ditu eta jazzeko euskal talde garrantzitsuenetako partaide izan da.

Mikel Anduezen Zazpikotea: 50 urte John Coltrane hil zela

Mikel Andueza (saxo altua), Bob Sands (saxo tenorra), Miguel Angel Lopez (saxo baritonoa), Jose Luis Gamez (gitarra), Francesc Capella (pianoa), Victor Merlo (baxua), Jo Krause (bateria)

John Coltrane duela 50 urte zendu zen, baina eragin erabakigarria utzi zuen etorkizuneko belaunaldientzat. Mikel Andueza euskal saxofonista gailenaren inguruan eratu den zazpikote bikain honek haren obra sorberrituko du. Kontzertuan, taldekide bakoitzak John Coltranearen irudiari erreferentzia egiten dion pieza bana aurkeztuko du. Coltranearen piezetan oinarrituta taldekideek egindako moldaketak interpretatuko dituzten arren, okasiorako taldean konposatutako obrak ere eskainiko dituzte. Une musikal bakoitza hura proposatu duen taldekideak azalduko du: zer kontzeptutan oinarrituta dagoen eta zer ekarri dion omenduaren irudiak bere ibilbide profesionalean.



Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

Hautatze-prozesutik datozen taldeak

Z-Bone Project Quartet

Zedrik Bernardot (tronboia), Xabi Leon (teklatuak), Thomas Saez (baxua), Pierre Sangla (bateria)

Lapurdikoko lau musikaririk osatzen dute tronboiari protagonismo berezia ematen dion talde sailkarezin hau. Hainbat estilo bateratzen dituzte alaitasunez, bata bestearen gainetik jarri gabe, eta soinuz egindako puzzle bat osatuz. Puzzle horretan jazz (haren adierazpenik zabalenean) funky, reggae, nu soul eta trip hop estiloekin nahasten dute, emaitza gisa dantza egitera gonbidatzen duen musika lortuz.

La Prima Janis

Arantxa Ojeta (ahotsa), Javier Blázquez (tronpeta), Eneko Anaut (saxoa), Ander Percas (gitarra elektrikoa), Javier Olabarrieta (pianoa), Mikel Navascués (baxu elektrikoa), Iñigo Redín (bateria)

La Prima Janis Arantxa Ojetak JanisJoplin-i dion miresmen sakonetik jaio zen, zeinak proiektu hau ia-ia ezinbestekoa egin baitu. 2006ko urtarrilean egin zuten debuta. Ordutik hona taldeak hainbat kontzertu eman ditu mota guztietako lokal, areto eta jaialdietan. Bandaren soinu trinkoak eta eszenaratze bikainak beste aro batera garamatza: orduan, Janis Joplinen ahots urratu bezain adierazkorrak artista amerikarrak bluesa, soula eta rocka ulertzeko zuen era berezia oparitu zigun. Ahots paregabeaz interpretatzen zaizkigu haren abesti onenak.

The Disappointments

Alberto Navascués "Eskualo" (Hammond organoa), Jokin Pallarés (gitarra elektrikoa), Jon Uribeetxeberria (bateria), Mikel Navascués (baxu elektrikoa)

The Disappointments (Dezepzioak) Hammond organoaren soinuan eta musika beltzaren eraginetan oinarritutako musika talde bat baino zerbait gehiago da. Esan genezake egoera psikologiko bat dela, erritmoa eta musika sentitzeko era bat, baina, batez ere, zuzenean interpretatzeko modu bat. Soul, be-bop, blues, Northern Soul eta Modjazz-aren eragin argiak antzematen zaizkio. Taldearen zenbait konposizio propioetan hainbat eragin iradokitzen dira: Jimmy Smith, Lou Donaldson edota Booker T. & The M.G.'s; beste batzuetan, aldiz, zinemari lotutako musika beltzaren oihartzunak entzuten dira, *Shaft*, *Bullitt*, *Dirty Harry* edo *Starsky and Hutch*-en estiloko filmetakoak.

Diablues & Bluecifer

Asier Elorza (tronpeta, dobroa, gitarra, ahotsa), Mikel Etxeberria (aho soinua, gitarra, ahotsa) Jazz eta blues akustikoarekiko pasioak batu zituen Bergarako 2 musikari hauek 2014 urtean. Belceblues taldeko abeslariak eta gaztetako lagun min batek osatzen dute bikote hau. Kontzertuetan, AEB hegoaldean aspaldi zegoen giroa arnastu daiteke. Instrumentazio tipikoa erabiltzeaz gain, doinu eta instrumentu bereziekin apaintzen dute beraien ezohiko soinua: ahots jokoak, aho soinua, dobroa, tronpeta... 2016an beraien lehenengo diskoa kaleratu dute: *DisCovers*.

Didier Datcharry Trio

Didier Datcharry (pianoa), Marie-Hélène Gastinel (bateria), Jean-Xavier Herman (kontrabaxua)

Hiru musikari hauek 2008an elkartu zirenetik, jazzaren historiako hiruko klasiko handien – Oscar Peterson, Erroll Garner, Phineas Newborn Jr., Ahmad Jamal edota Monty Alexander buru zituzten hirukoak– unibertsoa lantzen saiatu dira buru-belarri, eta erreperitorio erakargarriari forma ematea lortu dute. 2013an argitaratu zuten *Tribute to Jazz Trios*, publiko guztientzako pentsatutako album bat, 50. Heineken Jazzaldian aurkeztu zutena. Swinga da lan horretan nagusi, baina ordezkaturata daude jazz latinoak, bossa, balada eta reggaea ere.



Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

Ghost Number & His Topsy Gypsies

David Pisabarro aka *413* (banjoa, ahotsa), Jon Ander Burgos (tronpeta), Arantza Molina (biolina), Iñigo Manterola aka *Pellejo* (perkusioa, bateria), Nacho Fombuena (kontrabaxua), Jean-Marie Le Bris (gitarra), Lidia Insausti (koruak), Karmen Salazar (koruak)

Ghost Number & His Topsy Gypsies 2014an sortu zen, joan den mendean sustraitutako musikari perspektiba berri bat emateko asmoarekin. David Pisabarrok (aka *413*) musika-tresna akustikoz soilik osatutako talde bat eratzea lortu zuen eta, ordutik hona, kontzertu ugari eman dituzte hainbat aretotan eta zenbait jaialditan, hala nola 2015eko Kutxa Kultur Festibalean eta 2016ko Heineken Jazzaldian. Joan den mendeko 1930 eta 1940eko hamarraldietako country & western, swing eta blues musiketan oin bat bermaturik dutela, gutxiago miatutako lurralde garaikideagotan barneratzen saiatzen dira, Europa ekialdeko edo Karibeko calypsoaren eraginak gehituz. Taldearen joaldiek Cab Calloway, Hank Williams, Johnny Cash, Tom Waits edo C.W. Stoneking-en ahogozoa uzten dute.

Pas de Bourrée

Catalina Sophie (ahotsa), Diego Rodriguez (gitarra), Guido Farusi (kontrabaxua)

Pas de Bourrée 2014an eratutako hirukoa da. Taldearen errepertorioa, batik batik, jazz intimoa eta lasaia oinarritzen da, pop-ean, soul-ean eta Brasilgo musikan ere sarraldiren bat edo beste eginez. Konexio musikal polita dago hiruren artean eta komunikazio ona lortzen dute ikus-entzuleekin.



Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

Kass & The Gingerbread Boys

Kassandra Charalampi (ahotsa), Victor Anton (gitarra), Mikel Nuñez (pianoa, teklatuak), Chuchi Garcia (baxua), Unai Olabari (bateria)

Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegian (Musikene) sortutako blues/gospel/rhythm&blues-eko banda bat da. Eskaintzen dituzten zuzeneko bortitz eta indar handikoetan, musikari ospetsuen –Ray Charles, Aretha Franklin, John Lee Hooker...– bertsiok egiten dituzte. Taldekideak beste hainbat proiektutako partaide aktiboak dira –The Soul Messengers, Modulando Big Band, Pemptousia edota SoloParaLocos– eta jaialdi askotan jo izan dute: Heineken Jazzaldian, Tolosako Blues Jaialdian, Mojo Workin' Donostia deituan, eta Gaztela eta Leongo Jazz Jaialdian. Horiez gainera, beste hainbat auditorio eta aretotan ere eman dituzte kontzertuak.

Reunion Big Band

Kassandra Charalampi (ahotsa), María Sedano (ahotsa), Oskitz Gorrotxategi (tronpeta), Joan Gonga (tronpeta), Alejandra Artiel (tronpeta), Asier Ardaiz (tronpeta), Lander Arriola (tronboia), Jordi Arcusa (tronboia), Imanol Iribarren (tronboia), Nacho Soto (tronboi baxua), Xabier Oruesagasti (saxo altua), Noel Sacristán (saxo altua), Jon Zufiaurre (saxo tenorea), Miguel Arribas (saxo tenorea), Andrea Castaño (saxo baritonoa), Daniel del Valle (gitarra), David Cid (pianoa), Pablo Álvarez (kontrabaxua), Juan Francisco Martínez (baxu elektrikoa), Manu Gaigne (perkusioa), Pier Stefano Bruera (bateria)

Reunion Big Band izenekoa Europako hainbat tokitatik etorritako eta Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegian (Musikene) ikasitako hogeitak musikiari gaztekin osatutako jazzeko formazio handi bat da. Emanaldi arrakastatsua eskaini zuten 2014, 2015 eta 2016ko Heineken Jazzaldian, hilero jotzen dute Doka Kafe Antzokian eta Donostiako lindy hop-eko dantzariekin lankidetzan aritzen dira swing dantzako emanaldien antolakuntzan, musika zuzenean egiten dutela. Daramatzaten bost urteetan, swing tradizioarekin hasi eta egungo jazzeko joera berrietara arteko errepertorioa landu dute, musika latino eta funka ahaztu gabe.



Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

Erik, Joanes & Dave

Erik Niemietz (pianoa, teklatuak), Joanes Ederra (baxua), David Gorospe (bateria)

Erik madrildarrak eta Joanes & Dave zarauztarrek Musikenen ezagutu zuten elkar eta 2016ko udazkenean osatu zuten hiruko hau. Taldearen musikan izendatzaile komun bat –groovea– partekatzen duten hainbat estilo fusionatzen dira. Horrela, EJDren estiloaren barruan sartzen dira, blues eta swing tradizioak ez ezik, baita jazz rock, funk eta soul musikak ere.

HEINEKEN JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481900 E. jazzaldia@donostia.eus

www.heinekenjazzaldia.eus





Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

2016an diskoa argitaratu zuten taldeak

Elena Setién: *Dreaming of Earthly Things*

Elena Setién (ahotsa, teklatuak, loop-a), Mikel Azpiroz (teklatuak), Karlos Arancegui (bateria).
Artista gonbidatua: Niklas Knudsen (gitarra)

Elena Setién Donostiako abeslariak ibilbide arrakastatsua izan du nazioartean, eta etxera itzuli da, jazz lurrinak dituen bere pop sofistikatua aurkezteko. Azken lan diskografikoa Mikel Azpiroz musikari polifazetikoarekin batera produzitu du. Diskoan, Wurlitzer pianoaren, Moog sintetizadorearen eta Hammond organoaren soinu-aukerak arakutzen ditu. Tresnen tremoloa eta reverb-a ahotsarekin batera erabilia, Elenak, Mikelek eta Karlos bateriak amets-giro betean sartzen gaituzte. Donostiako kontzertura, gainera, Niklas Knudsen Danimarkako gitarrista gonbidatu dute. Dagoeneko ezaguna da Knudsen Heineken Jazzaldiaren publikoarentzat: 2014an izan zen hemen, Ibrahim Electric hirukoarekin.

Marcelo Escrich-Silent Trio: *Charlie Haden Songbook*

Alberto Arteta (saxo tenorra, saxo sopranoa), **Luis Giménez** (gitarra), **Marcelo Escrich** (kontrabaxua)

Silent Trio Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko korridoreetan sortu zen, erakunde horretako irakasleak baitira hiru taldekideak. Lehen proiektu honetan, bide batez omen egiten diotela, Charlie Haden-en alderdi agian ezezagunena atera nahi izan dute argitara: haren konposizioak. Charles Edward Haden (1937-2014), izan ere, kontrabaxu-jotzaile itzela ez ezik, musikagile ere izan baitzen, eta esan behar da hark idatzitako lanak lehen notetatik ezagungarri gertatzen direla. Haren maisutasuna agerian geratu zen 1983, 1993, 1994 eta 2001eko Heineken Jazzaldietan eskaini zituen emanaldietan.



Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

Alberto Arteta Group: *The Legacy*

Alberto Arteta (saxoa), Luis Gimenez (gitarra), Satxa Soriazu (pianoa), Kike Arza (kontrabaxua), Daniel Lizarraga (bateria)

Euskal Herrian gehien eskatzen den eta proiektio handienetakoa duen saxofoi-jotzailea dugu Alberto Arteta. Iruñeko Pablo Sarasate Musika Kontserbatorioan ikasi zuen jazz, non, Ohorezko Matrikula ez ezik, bere promozio-ikasle onenaren Karrera-amaierako Saria jaso baitzuen. Gero, Amsterdamen osatu zituen ikasketak, Dick Oatts, Gerald Clayton, Dave Douglas, Gary Foster eta beste hainbat musikari irakasle izan zituelarik. Hogei diskotik gora grabatu ditu, bai lider eta bai sideman gisa, horien artean aipatzekoak dira bere boskotearen buruan grabatu dituenak: *Bat* (2014) eta *The Legacy* (2016). Ehunka kontzertu eman ditu jazzeko jaialdi eta klub onenetan: Heineken Jazzaldia, Paradiso (Amsterdam), Café Central (Madril), Getxo Jazz Jaialdia, Bilbaina Jazz Club (Bilbo) eta Sala Caracol (Madril).

R.S. Basque Faktor: *Akúfeno*

Rubén Salvador (tronpeta, flugelhorn), Julen Izarra (saxo tenorra), Satxa Soriazu (pianoa), Javier Mayor de la Iglesia (kontrabaxua), Hilario Rodeiro (bateria)

Akúfeno diskoa Ruben Salvador proiektuaren liderrak ondutako lana da, Coruñan bizi izan zen hiru urteetan. Hiru saiotan eta hiru formazio desberdinek grabatutako diskoa da. R.S. Faktorek bi sukurtsal ditu, bata Euskadin eta bestea Galizian. Galiziakoa, R.S. Atlantic Faktor deitua, inguru haietako jazzeko musikari onenez osatua dago. Ruben Salvadorrek musikari horiekin gauzatu zituen lehenengo bi grabazio-saioak, musika-gogaidetasun handia lortu baitu beraiekin. Hirugarren saioa lehen sukurtsala, Euskadikoa, osatzen duten artistekin grabatu zuen, zeina R.S. Basque Faktor izenez ezagutzen baita. Musikari belaunaldi bikain horrekin landu eta grabatu zuen Ruben Salvadorrek bere orain hurrengo lana, *Starting*, zeinak, 2012ko BBK Sarietan, Jazzeko Disko Onenari zegokion Epaimahaiaren Sari Berezia irabazi baitzuen.

Mikel Azpiroz: Zuri

Mikel Azpiroz (pianoa)

Bidaiatzea eta musika, horiexek Mikel Azpirozen (Donostia, 1971) ibilbidea markatzen duten bi oinarriak. Sei urte zituela hasi zen pianoa jotzen, musika klasikoko ikasketak eginez, eta oso garaiz hasi zen etxeko tokadiskoak jotzen zuen guztia entzuten; musika afroamerikarrak ukitu zuen bereziki. Hammond B3-aren xarmak harrapatuta, Elkano Browning Cream taldea sortu zuen, eta hor erritmoan oinarritutako sorkuntza lantzen du batez ere. Pianoarekin eta organoarekin erakusten duen malgutasuna dela-eta, hainbat proiektutarako deitzen dute beste musikari batzuek. Bidaiak eta musika elkar elikatuz (Australia, AEB, Nigeria, Txina, Ekuador, India...), nortasun musikal askotarikoa eta nabarmena lantzen segitzen du, eta azkenean, jazzik erritmikoenaren, bluesaren eta munduko beste musika batzuen inguruan lur hartzen du.

Mikel Gaztelurrutia Trio: Walk

Mikel Gaztelurrutia (pianoa), Pau Lligadas (kontrabaxua), Alfonso López (bateria)

Walk diskak, Scott Peck idazlearen *The Road Less Traveled* izeneko liburuan du inspirazioa. Gure bizitzatan eta erabakietan parte hartzen duten mugimendua, indar erritmikoa eta inprobisazioa gogorarazi nahi ditu. Hiru zutabetan oinarritzen da: alde batetik, gai guztiak konposaketa originalak dira. Bestetik, musika afrokubatarraren erritmoak erabiltzen ditu eta azkenik, hirukoteak, gaien moldaketetan egindako lan trinkoa du eserleku, grabazioari nortasun erritmiko nabarmena eskainiz. *Walk*-en, afro, guaracha, mambo, bossa, reggae eta funk erritmoak aurkituko ditugu.



Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

Musikenek proposatutako taldeak

Quintessence

Maria Sedano (ahotsa), Javier Merino (gitarra), Erik Niemietz (pianoa), Joanes Ederra (baxua), David Gorospe (bateria)

Erik, Joanes & Dave hirukoa Maria Sedano abeslariarekin eta Javier Merino gitarristarekin elkartu da aldi honetan, Quintessence sortzeko. Kontzertua Musikenen egin duten ibilbidearen ispilu izango da. Bakoitzaren erreperatorioko pieza ezaugarrienen hautaketa bat eskainiko dute, beren musika-ikasketak azken emanaldi batekin burutu ondoren. Quintessenceren ikuskizunean, jazz bokala eta instrumentala, jazz tradizionala, fusiokoa, bebopa eta jazz modala tartekatuko dira, eta ez dira faltako jatorrizko konposizioak.

From Lost To The River

Jordi Arcusa (tronboia), Noel Sacristán (saxoa), Pedro Nuñez (tronpeta), Daniel del Valle (gitarra), Juanfran Martinez (baxua), Carles Perez (bateria)

From Lost To The River Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegian (Musikene) elkar ezagutu izanaren ondorioz sortutako taldea da. Bere xede nagusia Jazzeko Interpretazioa irakasgaiko karrera-amaierako zenbait proiektutako erreperatorioak bateratzea izan da. Seikote honek taldekideen jatorrizko konposizioak eta moldaketak ez ezik, jazzeko estandar klasikoak, eta groove edo funkeko piezak interpretatzen ditu.

Flan de Mono

Martin Holland (bateria), Chuchi Garcia (kontrabaxua), Andres Navascuez (pianoa), Imanol Iribarren (tronboia), Iñigo Lopez (ahotsa), Aingeru Torre (saxoa)

Flan de Mono jazzaren eta estilo horretatik eratorritako musiken interpretazioan espezializatutako seikote bat da. Jazzeko hainbat aldaera sartzen dira taldearen erreperitorioan, klasikoenetatik hasi eta garaikideenetara heldu arte.



Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

2017ko Katapultatza Tour Gipuzkoa taldeak

Buffalo

Ander Ederra (gitarra), Joanes Ederra (baxua), David Gorospe (bateria)

Buffalo talde instrumentala da. Zarautzen 2008an sortua, hiru lan argitaratu dituzte, azkenengoa *Zinematik* (2015) izenekoa Zarauzko Modelo aretoan grabatutako zuzeneko da. Hastapenetatik jorratu dute musika instrumental eta esperimental, hala ere ez da batere erraz klasifikatu dezakegun taldea. Beraiek argi dute ez direla etiketa zaleak, atmosfera musikal txiki eta delikatuen zale, kontzertu ugari eskeini dituzte, besteak beste, Heineken Jazzaldian eta Kutxa Kultur Festibalean. Buffalo beraien proiektu pertsonalena izateaz gain, hiru musikariek beste proiektu askotan parte hartu dute, esaterako Benito Lertxundi, Olatz Zugasti, Makala Jazz Funk Band, Txuma Murugarren eta abar.

Charlie & The Colours

Charlie Atkey (ahotsa, gitarra), Iñigo Asensio (eskusoinua, teklatuak), Iker Lauroba (kontrabaxua, gitarra), Oriol Flores (bateria)

Charlie & The Colours Donostian jaio eta bertan bizi den musika-taldea da. Taldekide dira, taldeko buru den Charlie Atkey britaniarra eta Euskal Herriko eta Kataluniako hiru musikari. Beraien musika, folk eta pop-musika, eta, akustikoa eta elektrikoako arloetan mugitzen da, tristura eta alaitasuna, zalantza eta fedea bezalako toki ezberdinetara iritsirik. Iluntasunetik argira eta bakardadetik solidaritatera bidaiatzen duten abestiak. *Bonsai Tree* (2015ean autoeditatua) lehenengo diskarekin urte eta erdiz Estatuko areto ezberdinetan kontzertuak emanez ibili dira heldutasun aro batetara iritsirik, eta gaur egun, bigarren lanaren promozioarekin dabilta. Bigarren lana honek *Mehaka* izena du Mehaka baserrian autoekoiztu dutelako.



Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

Grande Days

Ion Grijalbo (gitarra, ahotsa), Ignacio Bilbao (gitarra, ahotsa), JM Lluch (baxua, ahotsa), Ander Vildósola (bateria)

2013an sortua, zaila da Grande Days taldea sailkatzea. Bere musika indie rock doinuetera gerturatzeko da post rock eta rock finena alde batera utzi gabe. Bost abestik osatutako lehendabiziko EPa Karlos Osinagarekin "Txap" (Lisabö) grabatu zuten Tolosako Bonberenea estudioan. Lan honetan Za! taldeko Pauren kolaborazioa izan zuten. AIE (Artistas en Ruta) programaren 2017ko zirkuituan aukeratuak izan dira eta Zarata-Mondosonoro aldizkariak urteko demo onena bezala aukeratu zuen *Spark*.

Luma

Xabier Abel Martínez (gitarra elektrikoa, ahosa), Adrián Viñas Freiría (bateria)

Luma freskoa, zuzena eta bizia den rock bikotea da. Beraian lehen erreferentziak, *Club EP*-k, Euskadi osotik jotzera eramane zien, baita ere Espainiar estatuan zehar, hala nola The Bellrays, Holy Fuck, No Age, Siena Root, The Strypes, Belako eta Capsula bezalako bandekin eszenatokia konpartituz. Orain, *Airwalk EP* izeneko beraian bigarren estudioko lanarekin datoz, taldearen eboluzio bat bezala eta orain dela bi urte hasi zuten ibilbidearen erantzuna. Beraiek zuzeneko musika ikustera joan behar dela esaten dute, etxean gelditu beharrean YouTube-n atzeratuz, abesti bakoitzean hamar segundu bakarrik entzuten.



Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

Heineken Jazzaldiari buruzko Spotifyren zerrenda ofiziala

Heineken Jazzaldia 2017 izeneko playlist edo zerrenda ofizialean (<https://play.spotify.com/user/mmartin2009/playlist/7uVlwKyrAYQ8KgCjM2O7ZH>) Jazzaldian parte hartuko duten artista guztien musika entzun daiteke. Zerrenda hori oso erabilgarria da komunikabide guztientzat, ikus-entzunezkoentzat bereziki, baina baita edozein ikus-entzulerentzat ere.

Sarrerak salgai

52. Heineken Jazzaldirako sarrerak Heineken Jazzaldiaren (www.heinekenjazzaldia.eus), Donostia Kulturaren (www.donostiakultura.eus/sarrerak) eta Kutxabanken (<http://tickets.kutxabank.es>) web orrietan eros daitezke.